

## BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren 18. edizioa irailaren 24an hasi eta abenduaren 18an amaituko da. Bertsozale Elkarteak antolatzen duen hamargarren txapelketa da aurtengoa.

14 saiok osatuko dute 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Getxon abiatuko da, eta lehenengo aldiz, Iruñeko Nafarroa Arenan jokatuko da finala.

42 bertsolarik hartuko dute parte aurtengo edizioan. Horiekin batera, 14 lagunek osatzen dute gai-jartzaile taldea eta 21 izango dira epaile lanetan arituko direnak.

Bost urte igaro dira aurreko Bertsolari Txapelketa Nagusia egin genuenetik. Urte horiek oso gorabeheratsuak izan dira kulturgintzarako, eta orain artean ezagutu gabeko atakan izan da bertsolaritza: bertso plaza ia erabat geldirik, sortzaileak kinka larrian, gure ekosistema egun batetik bestera hankaz gora, bertso eskolak halabeharrez mutu, ekimen franko bertan behera...

Hala ere, egoeraren gordinak ifrentzua ere izan du, okerreanean ere izan dugu heldulekurik; elkartasunak, mugimenduaren irudimenak eta autoantolakuntzarako gaitasunak lagundu digute aurrera egiten.

Horrez gain, eguneroko erritmoa zertxobait moteldu behar izan dugunean munta handiko gaiak azalarazteko gai izan gara; besteak beste, kulturaren zereginaz edo sortzaileen lan baldintza duinez mintzatu gara azken hilabeteotan, ozen eta argi. Behartutako geldialdiak zenbait ikasgai eta etxeko lan utzi dizkigu denoi.

Testuinguru horretan ailegatu da Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022. Parte-hartzaileak irrikaz daude, plaza bere onera etortzen ari da, eta bertsozaleen partetik gogo berezia sumatzen da. Antolakuntzan, berriz, sortutako espektatibei arduraz eta taxuz erantzuten saiatuko gara.

Pasatutakoak ahaztu gabe, berriro ere bertsogintza izan dadila hizpide.





## EZAUGARRI NAGUSIAK

### Parte-hartzea

2017ko Txapelketa Nagusiko finalistek eta herrialde bakoitzeko txapelketetan sailkatuek dute aurtengo txapelketan parte hartzeko eskubidea. Guztira, 42 bertsolarik hartuko dute parte.

Lehenengo fasean, 36 bertsolari izango dira kantuan: 2 Arabatik, 10 Bizkaitik, 16 Gipuzkoatik, 5 Nafarroatik eta 3 Xilabatik sailkatuak. Finalaurrekoetan, aurreko edizioko finalistak sartuko dira, eta txapeldunak finalean kantatuko du.

Aitor Sarriegik eta Igor Elortzak uko egin diote txapelketan kantatzeari, eta aurrekoan finalean aritu zirenez, ez da inor sartuko euren ordeaz. Beñat Lizasok, Etxahun Lekuek, Jokin Urangak, Jon Maiak eta Odei Barrosok ere uko egin diote eskubideari, eta euren ordeaz Beñat Iguaranek, Haritz Mujikak, Imanol Uriak, Maialen Akizuk eta Patxi Iriartek kantatuko dute.

### Babesleak eta laguntzaileak

Urtero urtero Bertsozale Elkartearekin hitzarmenak dituzten erakundeak izango dira 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusia egitasmoaren babesleak: Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika; Nafarroako Gobernua, Euskarabidea eta Kultura Saila; Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Laboral Kutxa eta Amasa-Villabonako Udala.

Txapelketako saioak hartzen dituzten udalek ere ezinbesteko laguntza eman dute herri bakoitzeko saioa antolatzeko, bertako bertso-eskolekin elkarlanean.

Azkenik, Euskal Herri osoko hedabide laguntzaileak izango ditu Bertsolari Txapelketa Nagusiak, ekimena zabalkundean lagunduko dutenak. Horien ekarpena ere eskertu nahi du Bertsozale Elkarteak.



## Bertsozale Elkarteko bazkideentzako abantailak

Bertsozale Elkarteko bazkideak dira egiten ditugun ekitaldi guztien ezinbesteko sostengua. Horregatik, Bertsolari Txapelketa Nagusi honetan ere gure bazkideei esker ona agertu nahi diegu, txapelketan hainbat onura eskainiz.

- Saio guztietan prezio berezia izango dute sarreretan.
- Ekainaren 23tik ekainaren 30era bazkide bakoitzak bere finaleko sarrera erreserbatuta izango du.

## Txapelketa Interneten

Elkarren osagarriak diren bi webgune ditu aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiak.

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus): Bertsozale Elkartearen webgunean Txapelketa Nagusiak azpiatal berezia du. Txapelketaren informazio osoa izango da bertan: parte-hartzaileei buruzko datuak, saioei buruzkoak, sailkapenak, albisteak, laburpenak...

[www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus): Txapelketa Nagusiak bere gunea izango du webgunearen barruan: saioetako bertsoaldiak, zuzeneko emanaldiak, parte-hartzaileei egindako elkarrizketak...

Bertsolari Txapelketa Nagusia sare sozialen bitartez ere jarraitu ahal izango da, besteak beste, [Facebooken](#), [Instagramen](#), [Youtuben](#), [Twitterren](#) eta [LinkedInen](#) Bertsozale Elkartek dituen kanaletan eta Bertsoa.eus-en sare sozialetan. #BTN22 traola erabiliko dugu txapelketaren berri emateko.

## Irudia

Txapelketako irudia, euskarri eta saioetako azpiegitura guztien garapena Bertsozale Elkarteko komunikazio batzordeak eta Lanku Kultur Zerbitzuek egin dute, Dixidu komunikazio enpresarekin batera.



### Hitzetik Hortzera eta zuzenekoak

Txapelketa telebistaz jarraitzeko aukera ere izango da. Irailaren 18an hasiko da *Hitzetik Hortzeraren* denboraldi berria, eta igandero izango da ETB1en. EITBk eta Bertsozale Elkartek elkarlanean egiten dugun telebistako saio beteranoak Txapelketa Nagusiari eskainitako saio monografikoak egingo ditu abendura bitartean.

Bestalde, finalurreko guztiak zuzenean emitituko dituzte ETB4k, eta [www.eitb.eus](http://www.eitb.eus) eta [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) atariak.

### Atzerriko inprobisatzaileak eta ikertzaileak

Aurten ere gonbidatuko ditugu atzerriko inprobisatzaileak eta ikertzaileak txapelketara. Aurrerago emango dugu horren berri.

### Txapeldunak Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historian

Urtea	Lekua	Txapelduna
1935	Donostia	Iñaki Eizmendi 'Basarri'
1936	Donostia	Manuel Lujanbio 'Txirrita'
1960	Donostia	Iñaki Eizmendi 'Basarri'
1962	Donostia	Manuel Olaizola 'Uztapide'
1965	Donostia	Manuel Olaizola 'Uztapide'
1967	Donostia	Manuel Olaizola 'Uztapide'
1980	Donostia	Xabier Amuriza
1982	Donostia	Xabier Amuriza
1986	Donostia	Sebastian Lizaso
1989	Donostia	Jon Lopategi
1993	Donostia	Andoni Egaña
1997	Donostia	Andoni Egaña
2001	Donostia	Andoni Egaña
2005	Barakaldo	Andoni Egaña
2009	Barakaldo	Maialen Lujanbio
2013	Barakaldo	Amets Arzallus
2017	Barakaldo	Maialen Lujanbio



## PARTE-HARTZAILEAK

### BERTSOLARIAK



**Agin Laburu Rezola**

Astigarraga, 1985  
3. aldiz Txapelketa Nagusian



**Amaia Iturriotz Etxaniz**

Urretxu, 1993  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Aitor Bizkarra Ruiz**

Abadiño, 1996  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Amets Arzallus Antia**

Hendaia, 1983  
6. aldiz Txapelketa Nagusian



**Aitor Etxebarriazarraga Gabiola**

Gernika-Lumo, 1993  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Ane Labaka Mayoz**

Lasarte-Oria, 1992  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Aitor Mendiluze Gonzalez**

Andoain, 1975  
7. aldiz Txapelketa Nagusian



**Asier Azpiroz Iztueta**

Zubieta, 1991  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Alaia Martin Etxebeste**

Oiartzun, 1987  
3. aldiz Txapelketa Nagusian



**Beñat Gaztelumendi Arandia**

Añorga, 1987  
4. aldiz Txapelketa Nagusian



**Beñat Iguaran Amondarain**  
Amasa-Villabona, 1988  
2. aldiz Txapelketa Nagusian



**Imanol Uria Albizuri**  
Algorta, 1993  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Eneko Lazkoz Martinez**  
Etxarri-Aranatz, 1983  
2. aldiz Txapelketa Nagusian



**Iñaki Apalategi Astigarraga**  
Beasain, 1982  
3. aldiz Txapelketa Nagusian



**Eñaut Martikorena Lizaso**  
Hernani, 1995  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Iñigo Mantzizidor Larrañaga  
'Mantxi'**; Zarautz, 1977  
4. aldiz Txapelketa Nagusian



**Gorka Pagonabarraga Agorria**  
Durango, 2000  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Joanes Illarregi Marzol**  
Leitza, 1999  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Haritz Mujika Lasa**  
Asteasu, 1995  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Jone Uria Albizuri**  
Getxo, 1990  
4. aldiz Txapelketa Nagusian



**Iban Urdangarin Lardizabal**  
Ataun, 1985  
2. aldiz Txapelketa Nagusian



**Julio Soto Ezkurdia**  
Iruñea, 1987  
4. aldiz Txapelketa Nagusian





**Maddalen Arzallus Antia**  
Hendaia, 1990  
3. aldiz Txapelketa Nagusian



**Nerea Elustondo Plazaola**  
Legazpi, 1981  
4. aldiz Txapelketa Nagusian



**Maialen Akizu Bidegain**  
Urretxu, 1996  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Nerea Ibarzabal Salegi**  
Markina-Xemein, 1994  
2. aldiz Txapelketa Nagusian



**Maialen Lujanbio Zugasti**  
Hernani, 1976  
7. aldiz Txapelketa Nagusian



**Oihana Bartra Arenas**  
Bilbo, 1984  
4. aldiz Txapelketa Nagusian



**Manex Agirre Arriolabengoa**  
Aramaio, 1982  
2. aldiz Txapelketa Nagusian



**Oihana Iguaran Barandiaran**  
Amasa-Villabona, 1991  
2. aldiz Txapelketa Nagusian



**Miren Amuriza Plaza**  
Berriz, 1990  
4. aldiz Txapelketa Nagusian



**Onintza Enbeita Maguregi**  
Muxika, 1979  
5. aldiz Txapelketa Nagusian



**Miren Artetxe Sarasola**  
Hendaia, 1985  
4. aldiz Txapelketa Nagusian



**Patxi Iriart Hiribarren**  
Hiriburu, 1988  
1. aldiz Txapelketa Nagusian





**Peru Abarrategi Sarrionandia**  
Aramaio, 1997  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Unai Gaztelumendi Arandia**  
Añorga, 1988  
2. aldiz Txapelketa Nagusian



**Saioa Alkaiza Guallar**  
Iruñea, 1991  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Unai Mendizabal Jauregi**  
Zizurkil, 1992  
1. aldiz Txapelketa Nagusian



**Sustrai Colina**  
**Acordarrementeria**  
Urruña, 1982  
6. aldiz Txapelketa Nagusian



**Xabat Gallettebeitia Abaroa**  
Lekeitio, 1986  
2. aldiz Txapelketa Nagusian



**Unai Agirre Goia**  
Hernani, 1975  
6. aldiz Txapelketa Nagusian



**Xabier Silveira Etxeberria**  
Lesaka, 1976  
5. aldiz Txapelketa Nagusian



## **GAI-JARTZAILE TALDEA**

Saioetarako gaiak sortzeaz eta prestatzeaz gain, saioak aurkeztea ere talde honen ardurua izango da. 14 kidez osatuta dago: Ainhoa Larretxea Agirre (Bera, 1996), Alaitz Rekondo Ferrero (Lesaka, 1980), Amaia Castorene Luro (Baigorri, 1988), Amaiur Lujanbio Agirre (Baiona, 1980), Ander Aranburu Arriola (Lizarra, 1985), Ane Ezenarro Beristain (Eibar, 1991), Aritz Bidegain Aire (Baiona, 1982), Beñat Vidal Gurrutxaga (Plentzia, 1986), Idoia Anzorandia Kareaga (Barakaldo, 1983), Imanol Artola Arretxe 'Felix' (Amezketza, 1989), Ion Zaldúa Brit (Amasa-Villabona, 1978), Leire Garatxena Larrabe (Ajangiz, 1991), Maialen Belarra Eneterreaga (Doneztebe, 1992) eta Zihara Enbeita Gardoki (Gernika-Lumo, 1976).

## **EPAILE TALDEA**

21 epailek osatzen dute epaile taldea. Honako hauek dira kideak: Ainhoa Arregi Elosua (Bilbo, 1972), Ainhoa Sarasua Lascaray (Itsasu, 1997), Aitor Jimenez Tolosana (Bilbo, 1962), Amaia Otxotorena Gamio (Ereñotzu, 1989), Bakarne Urreaga Etxeberria (Hernani, 1978), Egoitz Iradier Martinez de Albeniz (Zalduondo, 1996), Ekaitz Elorriaga Anduaga (Gasteiz, 1981), Eneko Bidegain Aire (Baiona, 1975), Eneritz Azkue Basurko (Mutriku, 1982), Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo, 1970), Joseba Beltza Bengoetxea (Etxarri-Aranatz, 1983), Joseba Santxo Uriarte (Getxo, 1962), Jurgi Fuentes Goikoetxea (Mungia, 1981), Karlos Iburguren Olalde (Errenteria, 1965), Leire Beloki Lizarralde (Oiartzun, 1979), Maialen Berra Zubieta (Baiona, 1993), Mirari Azula Aurrekoetxea (Lekeitio, 1973), Miriam Juaristi Urizar (Zaldibar, 1991), Nerea Bruño Artazkoz (Atarrabia, 1978), Saioa Mitxelena Irazoki (Bera, 1978) eta Zigor Leunda Eizmendi (Amasa-Villabona, 1978).



## EGUTEGIA

LEHENENGO FASEA		
Irailak 24, larunbata, 17:00	Getxo	Muxikebarri Zentroa
Irailak 25, igandea, 17:00	Arrasate	Amaia Udal Antzokia
Urriak 1, larunbata, 17:00	Gotaine-Irabarne	Herriko Gela
Urriak 2, igandea 17:00	Gasteiz	Europa Biltzar Jauregiko Maria de Maeztu entzunaretoa
Urriak 8, larunbata, 17:00	Donostia	Victoria Eugenia Antzokia
Urriak 9, igandea, 17:00	Lizarra	Los Llanos Kulturgunea
FINALAURREKOAK		
Urriak 22, larunbata, 17:00	Elizondo	Baztan pilotalekua
Urriak 29, larunbata, 17:00	Donibane Garazi	Jai Alai ezker pareta
Azaroak 5, larunbata, 17:00	Irun	Ficoba
Azaroak 12, larunbata, 17:00	Durango	Landako Gunea
Azaroak 19, larunbata, 17:00	Amurrio	Bañueta Kiroldedia
Azaroak 26, larunbata, 17:00	Baiona	Lauga
Abenduak 3, larunbata, 17:00	Bilbo	Bizkaia Frontoia
FINALA		
Abenduak 18, igandea, 11:00	Iruñea	Nafarroa Arena



## FASEAK ETA SAILKAPENAK

Hiru fasetan banatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusia: lehenengo fasea, finalaurrekoak eta finala.

### Lehenengo fasea:

36 bertsolarik kantatuko dute fase honetan, denak herrialdeetako txapelketetatik sailkatuak. Sei bertsolariz osatutako sei talde egingo dira eta saio bakarrera lehiatuko dira. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasako da hurrengo fasera; puntu gehien batzen dituztenekin osatuko da finalaurrekoetara igaroko den taldea.

### Finalaurrekoak:

24 bertsolari ariko dira kantuan fase honetan: izena eman duten 2017ko bost finalista eta lehenengo fasetik sailkatu diren 19 bertsolariak.

Bi itzuli izango ditu finalaurreko faseak: lau finalaurreko izango dira lehenengoan eta hiru bigarreanean. Bi saioetako puntuazioak gehitu egingo dira, eta lehenengo itzulian puntu gutxien lortu duten sei bertsolariek ez dute aurrera egingo. Taldeak aldatu egingo dira lehenengo itzulitik bigarrenera.

### Finala:

Zortzi bertsolari ariko dira kantuan: 2017ko txapelduna eta finalaurrekoetatik puntuazioz sailkatuko diren zazpiak. Hiru saiotan banatuko da ekitaldia: goizean, zortzi bertsolariak jardungo dira eta zortzi bertsolariekin emango zaio hasiera arratsaldeko jardunari ere; azkenean, puntu gehien metatu duten bi bertsolarien arteko buruz burukoa jokatuko da. Egun osoko jardunean puntu gehien eskuratu dituen izango da txapelduna.





## LEHENENGO FASEA

**GETXO, irailak 24. Muxikebarri Zentroa, 17:00.**

- Agin Laburu Rezola
- Eneko Lazkoz Martinez
- Nerea Elustondo Plazaola
- Oihana Bartra Arenas
- Peru Abarrategi Sarrionandia
- Unai Mendizabal Jauregi

**ARRASATE, irailak 25. Amaia Udal Antzokia, 17:00.**

- Asier Azpiroz Iztueta
- Iñaki Apalategi Astigarraga
- Joanes Illarregi Marzol
- Miren Amuriza Plaza
- Saioa Alkaiza Guallar
- Xabier Silveira Etxeberria

**GOTAIN-IRABARNE, urriak 1. Herriko Gela, 17:00**

- Alaia Martin Etxebeste
- Ane Labaka Mayoz
- Julio Soto Ezkurdia
- Nerea Ibarzabal Salegi
- Oihana Iguaran Barandiaran
- Patxi Iriart Hiribarren



**GASTEIZ, urriak 2. Europa Biltzar Jauregiko Maria de Maeztu entzunaretoa, 17:00.**

- Amaia Iturriotz Etxaniz
- Haritz Mujika Lasa
- Iban Urdangarin Lardizabal
- Manex Agirre Arriolabengoa
- Miren Artetxe Sarasola
- Xabat Galletebeitia Abaroa

**DONOSTIA, urriak 8. Victoria Eugenia Antzokia, 17:00.**

- Aitor Etxebarriazarraga Gabiola
- Beñat Iguaran Amondarain
- Eñaut Martikorena Lizaso
- Jone Uria Albizuri
- Maddalen Arzallus Antia
- Onintza Enbeita Maguregi

**LIZARRA, urriak 9. Los Llanos Kulturgunea, 17:00.**

- Aitor Bizkarra Ruiz
- Gorka Pagonabarraga Agorria
- Imanol Uria Albizuri
- Iñigo Mantzizidor Larrañaga 'Mantxi'
- Maialen Akizu Bidegain
- Unai Gaztelumendi Arandia

## SAILKATZE SISTEMA

### FINALAURREKOEN 1. ITZULIRAKO

<b>ELIZONDO 2022-10-22</b>	<b>DONIBANE GARAZI 2022-10-29</b>	<b>IRUN 2022-11-05</b>	<b>DURANGO 2022-11-12</b>
Unai Agirre Goia	Ametz Arzallus Antia	Sustrai Colina Acordarrementeria	Beñat Gaztelumendi Arandia
Arrasateko irabazlea	Gasteizko irabazlea	Donostiako irabazlea	Aitor Mendiluze Gonzalez
Getxoko irabazlea	Puntuazioz 1.a	Gotaine-Irabarneko irabazlea	Lizarrako irabazlea
Puntuazioz 5.a	Puntuazioz 2.a	Puntuazioz 3.a	Puntuazioz 4.a
Puntuazioz 6.a	Puntuazioz 7.a	Puntuazioz 8.a	Puntuazioz 9.a
Puntuazioz 13.a	Puntuazioz 12.a	Puntuazioz 11.a	Puntuazioz 10.a

### FINALAURREKOEN 2. ITZULIRAKO

<b>AMURRIO 2022-11-19</b>	<b>BAIONA 2022-11-26</b>	<b>BILBO 2022-12-03</b>
Donibane Garaziko irabazlea	Irungo irabazlea	Durangoko irabazlea
Elizondoko irabazlea	Puntuazioz 1.a	Puntuazioz 2.a
Puntuazioz 5.a	Puntuazioz 4.a	Puntuazioz 3.a
Puntuazioz 6.a	Puntuazioz 7.a	Puntuazioz 8.a
Puntuazioz 11.a	Puntuazioz 10.a	Puntuazioz 9.a
Puntuazioz 12.a	Puntuazioz 13.a	Puntuazioz 14.a

### FINALERAKO

Iruñea, abenduak 18. Nafarroa Arena, 11:00.

Maialen Lujanbio Zugasti

+Puntuazioz zazpi bertsolari





## LANAK

### Lehenengo fasea – (15 bertso puntuagarri)

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
- Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

### Finalaurrekoak

#### *Lehen itzulia – (16 bertso puntuagarri)*

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean
- Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

#### *Bigarren itzulia – (14 bertso puntuagarri)*

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- Kartzelako lana: banaka, lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian eta gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian





## Finala

### *Goiza – (15 bertso puntuagarri)*

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean
- Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### *Arratsaldea – (10 bertso puntuagarri)*

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte
- Bakarka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

### Buruz burukoa: - (10 bertso puntuagarri)

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso Iparragirre doinuan
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- Kartzelako lana:
  - Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian
  - Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian



## SARRERAK

Saio guztietarako sarrerak ekainaren 23an jarriko dira salgai [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian.

Bertsozale Elkarteko **bazkideek finaleko sarrera erreserbatuta** izango dute ekainaren **23tik 30era bitartean**.

Interneteko atariaz gain, **finaleko sarrerak Nafarroako Bertsozale Elkartean** (Baratzeetako zeharkalea 2 behea, Iruñea) ere egongo dira salgai ekainaren 23tik 30era bitartean (larunbatean eta igandean izan ezik). Orduategia, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara izango da.

Gainerako saioetako sarrerak irailetik aurrera egongo dira salgai saioak egingo diren herrietan bertan; betiere, aurrez agortzen ez badira.

	BAZKIDEAK	EZ-BAZKIDEAK	GAZTEAK 2004 urtetik aurrera jaiotakoak (2004 barne)
LEHENENGO FASEA	10 €	12 €	6 €
FINALAURREKOAK	14 €	17 €	10 €
FINALA	30 €	42 €	20 €

Finalerako autobus zerbitzua eta bazkari zerbitzua ere eskainiko da, baina aurrerago emango dugu horren berri.





## PRENTSA BULEGOA

### Akreditazioak

Txapelketan zehar antolatzen diren ekitaldietara eta saioetara sartzeko akreditazioa eskatu beharko dute hedabideek eta kazetariak [komunikazioa@bertsozale.eus](mailto:komunikazioa@bertsozale.eus) helbidean.

Saio bakarrerako zein txapelketako saio guztietarako akreditazioak egongo dira.

Ez da saioak osorik grabatzeko baimenik emango, baina ikus-entzunezko materiala behar izanez gero, egongo da noski, lortzeko aukera. Hori bai, ikus-entzunezkoen zerbitzua behar izanez gero, jarri harremanetan gurekin eta adostuko dugu

### Kontaktua

Bertsozale Elkarteko Komunikazio Saila

E-posta: [komunikazioa@bertsozale.eus](mailto:komunikazioa@bertsozale.eus)

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Kale Nagusia 70, Amasa-Villabona

Tel.: (+34) 943 694 129

